

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Biktimen erreparazioa, Foru Gobernuaren oinarrizko helburua bakearen eta bizikidetzaren arloan

Álvaro Baraibar, zuzendari nagusi berriak, unitate berri honek lan-ildo nagusiak aurkeztu ditu

Jueves, 10 de diciembre de 2015

Biktimei zaio zaien egia, justizia eta erreparazioa da Nafarroako Gobernuaren oinarrizko helburuetako bat. Horretarako, 1936ko estatu-kolpearen ondoren hil zituzten pertsonak hobietatik ateratzeko lana bultzatuko da, eta azken hamarkadetako biktimei laguntzeko programa bat ezarriko da, hots, ETaren eta bestelako terrorismoen eta giza eskubideen beste urraketa batzuen biktimei laguntzeko programa.

Horixe ziurtatu du Álvaro Baraibar Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusiak gaur goizean emandako prentsaurrekoan. Bere ardurapeko unitate berriaren lan-ildo nagusiak aurkeztu ditu gaur, abenduak 10, hau da, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzen den honetan.

Baraibarrek adierazi duenez, Giza Eskubideen Nazioarteko Deklarazioa da Nafarroako Gobernuak bakea, adiskidetzeta eta bizikidetzeta bultzatzeko lanaren giltzarria, betiere “biktima guztiei zor zaien egia, justizia eta erreparazioa oinarri direla”.

Horri dagokionez, hiru lan-ildo zehaztu ditu:

- Memoria historikoa.
- Oraintsuko memoria eta terrorismoaren biktimak eta giza eskubideen beste urraketa batzuen biktimak.
- Bizikidetzeta eta Nafarroan den arlo guztietako pluraltasunaren errespetua (pluraltasun sozial, politiko, erlijiosoa...).

Hiru arloetan, zuzendaritza nagusiak begirada hirukoitz abaten bidez eginen du lan: begirada kritikoa eskubideak eta pertsonaren duintasuna larriki urratu diren iraganari (oraintsuko iraganari eta ez hain oraintsukoari); begirada orainari, begirada elkartasunezkoa, humanizatzailea, giza eskubideak urratu zaizkien biktima guztiei laguntzeko; eta begirada geroari, prebentziozkoa, halako urraketarik gerta ez dadin berriz.

Baraibarren ustez, etorkizun baketsua eraikitzeko bidean, iragana ikasbide dugu berriz ere oker berberak ez egiteko. Horregatik, “etorkizuneko gizarteak zutabe sendoak izan behar ditu: giza eskubideen errespetua, eragindako kaltearen erreparazioa, adiskidetzeta eta

bizikidetza, eta urraketa berberak ez errepikatzeko bermeak”. Lan hori, adierazi duenez, erakunde eta herritar guztiei dagokie.

Bestetik, pluraltasunaren garrantzia nabarmendu du. “Gizarte demokratiko batean tokia izan behar du desadostasunak, iritzien konfrontazioak, munduari buruzko ikuskera eta proiektu desberdinek, baina ona litzateke denok ohartzea pluraltasun horrek gizartea eta herritar guztiok aberasten gaituela baldin eta giza eskubideen errespetua bada goreneko balioa”.

Lan-ildo nagusiak

Zuzendari nagusiak Nafarroako Gobernuak gai hauetan garatuko dituen lan-ildo nagusien zerrenda eman du.

1.- Memoria historikoa.

- Lehenetsunezkatat eta presakotzat hartzen da 1936ko estatu-kolpearen ondorioz hil eta desagertutako pertsonak hobietatik ateratzea.

- Espazio publikoa demokratizatuko da, sinbologia frankista eta indarkeria goren duten sinboloak kenduko dira.

- Gizarte osoari eta hurrengo belaunaldiari gertatu zenaren berri emanen zaio, errespetuaren eta bizikidetzaren balioak bultzatzeko eta berriz halakorik ez gertatzeko.

2.- Orainsuko memoria

- ETaren eta bestelako terrorismoen biktimei eta gure lurrean gertatu diren giza eskubideen bestelako urraketen biktimei buruzko informazioa bilduko dugu gertatutakoa argitzen laguntzeko eta gertatutakoaren erretratu ez baztertzaila bat izateko.

- ETaren eta bestelako terrorismoen biktimei eta giza eskubideen beste urraketen biktimei laguntzeko programa pertsonalizatu bat garatuko da, gure elkartasuna adierazteko eta hurbiletik jakiteko zer premia dituzten.

3.- Bizikidetza

- Errespetuan, bakean, bizikidetzan eta giza eskubideetan oinarritutako kultura aukatuko da, gainerako departamentuekin elkarlanean, eta bereziki kontuan hartuz hezkuntza, kultura eta gazteria.

- Dibertsitatearen, pluraltasunaren eta gutxiengoenganako errespetua sustatuko da, bizikidetzak gizarte osoa aberasten duelako ideia defendatu, bizitzaren arlo guztietan: politikoan, etnikoan, sozialean, erlijiosoan...